

Konturatu gara arazoak sortu direla KMKko katalogora Interneteko arakatzaille batzuekin Java bidez sartzeko orduan. Zehazkiago Explorer 5 Interneteko bertsio goren batzuekin.

Hori izan bada zure kasua, eta era horretan katalogoan sartzerik ez baduzu izan, beste sarrera bat proposatzen dizut askoz ere azkarragoa eta erosoagoa, Interneten bidez egin gabe. Lotura zuzen bat da Telnet 3270 bidez. Katalogoarekin konektatzeko preparatuta daukagun programa txiki bat da, baina urrats txiki batzuk egin behar dituzu zuzen erabiltzeko. Programa honekin batera bidaltzen dizudan artxibo bat da, "tn3270.exe". Artxibo bat da, konprimituta artxibo batzuk dituen, eta hortaz jarraibide batzuk izan behar dituzu kontuan:

- Gorde ezazu "tn3270.exe" fitxategia disko gogorrean. Edozein lekutan utz dezakezu (lan mahaian, C edo beste batean).
- Fitxategia gorde ondoren, direktorio batean deskonprimitu behar duzu. Horretarako Windows Explorer hautatu behar duzu, fitxategia non utzi duzun bilatu eta "tn3270.exe" artxibategia klikatu behar duzu saguarekin. Ondoren, fitxategia nora eraman galdetuko dizu. Hauta ezazu C:/ eta eman Extract-i.
- Deskonprimitu duenean (azkar egiten du) direktorio bat sortuko da C:/tn3270-n. Kopia ezazu "KMK Katalogoa" fitxategia, Lan mahaian direktorio horretan dagoena.
- Lan mahaian dagoen "KMK Katalogoa" fitxategia saguarekin bi bider klikatuz sar zaitezke katalogoan. Katalogoa kontsultatzeko era, hemen daukagun terminaletakoen antzekoa da.

Beste era bat Interneteko beste arakatzaille bat, adibidez Netscape Communicator, jartzea da, dirudienez ez baitu eragozpen handirik katalogora Java bidez sartzeko.

Jarraibide hauek lagunduko dizutela espero dut eta horrela etxetik katalogora sartzeko aukera izango duzula. Arazoren bat baldin baduzu, dei iezadazu zuzeneko telefonora: 943-482762.

Agur t'erdi.